

PILOTA

Ladis Galarza: «Errastik esku onak ditu eta partidu gogorra aterako da»


Lau t'erdiko torneoa Beotibarren estreinatuko da bihar (ETB-1, 22.30)

Bihar hasiko da Tolosako Beotibar pilotalekuan lau t'erdiko torneoa (ETB-1, 22.30). Ladis Galarzak, faborito nabarmenak, Errasti «manomanista ona» dela esan eta partidu gogorra iragarri du. Ilusioa badu torneoa irabazteko, baina helburu nagusia Eskuz Banakako Txapelketa duela onartu du, «ezin liteke konpara».

XABIN MAKAZAGA / DONOSTIA

«Errastik esku onak dauzka eta partidu gogorra aterako da». Horrela mintzatu zaigu Galarza, bihar Errastiren kontra lau t'erdiko torneoa jokatzeko zain. Profesionaletan aurreneko partidua izango da azkoitiarrarentzat distantzia horretan, Baraibarko txapelkunak gogorazari duenez, «baina jokatu aurretik ezin daiteke jakin zeinek irabaziko duen». Orain arte ondo moldatu da Ladis Galarza lau t'erdian, «iaz partidu kaskar bat jokatu arren», baina faborito izatea «irabazteko aski ez» dela erantzun digu; 22 tantora heldu behar dela eta Errasti, Beloki nahiz Eugi kontutan hartzeko aurkariak ikusten dituela, alegia.

BETI IRABAZI NAHIA Manomanistak adinako interesa izan ez arren, lau t'erdiko torneoa irabazteko aukerari ez dio uko egin nahi Galarzak. «Helburua beti manomanista izaten da, baina horrelako torneoa ere in-



Nahi bezala prestatu gabe ekingo dio Galarzak lau t'erdikoari. VILLAGRAN

teresgarriak dira, eta irabaztea beti polita izaten da. Nik ahaleginak egingo ditut behintzat». Hala eta guztiz, gutxitxo entrenatu duela aitortu du lau t'erdiko. «Horixe daukat pena handiena, baina partidu asko jokatu ditut bi-bika eta ez dut gehiago entzatzeko denborarik izan».

Errastiren moduan, Ladis Galarzak ere lau t'erdiko torneoa ahalegin guztiak egingo dituela adierazi arren, guztiaren gainetik manomanista dagoela onartu du, «ezin liteke konpara. Eta Errasti manomanista polita da, bi eskuak onak ditu. Nik uste lau t'erdian barruan ere ongi ibiliko dela».

Julian Retegiren erregetza hautsi eta azken bi urteetan Ladis Galarzak irabazi du eskuz banakako txapela. Bide horretatik segi nahi du Baraibarko atzelariak, «beste hamabost urtean ere bai»

erantzun digu txantxetan. Nolanahi ere, aurtun kalitate handiko pilotariak izango direla adierazi du. «Eugi, Errasti, Beloki, Zezeaga, Arretxe, jende asko dago, Retegi II ere bai, eta nik uste partidu onak aterako direla». Galarzak berak «beste urtebete, bi edo hirutan» manomanista irabazten ahaleginak egingo dituela gaineratu du, «zenbat eta gehiago ekarri hobe».

«DEBUTARIAK KONFIDANTZA MEREZI DU»

Debutak ugarriak izan dira azken boladan, eta pilotari berri asko ari da estelarrak jokatzen. Guztiak 'primerakoak' bihurtzea «zaila» ikusten du Ladisek. «Bat edo beste bai, pilotari oso onak dira tartean. Nik ondo ikusten dut dotozenei aukera ematea estelarretan, aukera merezi dute. Gero,

KARTELDEGIA

Gaurko partiduak

GALARRETA. 16.00. Egialde - Ekiza / Odriozola - Soto. Matxin II - Agerre / Elizalde II - Aizpuru. Ezkurra - Saldias / Lezea - Auzmendi. Kalonge - Astrain / Zeberio - Imaz.

EUSKAL. 16.00. Urrutia - Etxabe / Iriarte - Amondarain. Arregi - Zubeldia / Altuna - Etxeberria. Noain - Barrenetxea / Urretabizkaia - Aranburu. Urkia - Zestau / Larrañaga - Urretabizkaia II.

DEPORTIVO. 16.30. Ziskar - Peluaga / Garma - Alvarez. Iturzaeta - Aia Zulaika / Isusi II - Torre.

askok segundak jokatu beharko dute, eta hori ez da ona pilotariarentzat. Denborak jarriko du bakoitza bere tokian, sobra».

Galarzak berak aspaldi egin zuen debuta, 18 urterekin. «Suertea izan nuen horretan, eta urtebete ona egin ondoren oso gaizki ibili nintzen, soldaduzka garaian. Gero primerara itzuli nintzen, eta orain arte». Heldutasuna lortzeko denbora behar izan zuen baina, orain txapelketa sendoa izan arren. Pilotari berriek ere konfidantza merezi dutela iritziz dio Galarzak, hasieratik gehiegi eskatu gabe. «Pilotari denak debutatu eta ondo hasten dira, baina gero guztiak izaten dute beherakada. Eta hor ere hartzen dute jokoa. Denbora eman behar zaie». Ez dira debaldekoak Galarzaren hitzak, berak ordain la-tza eman behar izan baitu txapelak irabazi bitartean.

JOVENTUT eta Dornak kontratua sinatuko dute

Joventut taldeak 450 milioi pezetako kontratua sinatuko du Dorna enpresarekin. Akordio honen arabera, Dornak babeslea aurkitu beharko dio Espainiako Liga txapelkunari, datozen bi urteetarako. Enpresa honetako iturrien arabera, Joventutek 200 milioi pezeta jasoko lituzke aurtengo denboraldian, eta 250 milioi pezeta berriz, hurrengo denboraldian. Babesle desberdinak izan ditzake Joventutek Espainiako Ligan eta Europako Ligan ●

BARTZELONA'92: atletak dopatu egin zirela salatuko dute

Harm Beyer, Alemaniako Igeriketa Federazioko (DSV) lehendakari ohiak atzo adierazi zuenez, Bartzelonako Joko Olinpikoetan domina lortutako atleten % 70 inguru dopatuta zegoen. Beyerren esanetan, bere kalkulua «errealista da. Kontuan hartu behar da atleta askok debekatutako sustantziak hartu zituztela lehenengo faseetan ●

GRENOBLEko Sei Egunetan Duclos-Bincoletto garaile

Gilbert Duclos-Lassalle frantziarra eta Pierangelo Bincoletto italiarra izan ziren Grenobleko Sei Egunetako irabazleak. Duclos eta Bincoletto probaren hasieratik izan ziren aurreko tokietan, eta ez zuten garaipena lortzeko arazo handiegirik izan. Pello Ruiz Cabestany eta Abraham Olano euskal txirrindulariak berriz, zortzigarren tokian sailkatu ziren, irabazleengandik bederatzi itzulira ●

SUPERKROS Txapelketa Bartzelonan

Asteburu honetan jokatuko da Bartzelonako Palau Sant Jordi kiroldegian III Superkros Indoor proba, Munduko Superkros Txapelketarako baliozgarria. Ibilbideak 350 metro izango ditu eta zailtasun ugari, karrera ikusgarriagoa egiteko ●

GOLFA

Gaur Madrilen hasiko den Munduko Kopan EEBB da faborito argiena

DONOSTIA

Gaur hasiko da Madrileko La Moraleja 2 zelaian Munduko Golf Kopa eta hasiera batean, EEBBetako selekzioa da garaipena eskuratzeko faborito nagusia. EEBBetako taldea Fred Couples eta Davis Love jokalariek osatzen dute. Aurrea aurtun Augustako Masterreseko txapelketa izan da. Biek ez dute Munduko Kopan inoiz jokatu eta beraz, beraien debuta izango da. EEBBetako selekzioak orain arte 17 Kopa irabazi ditu.

Galestarrek ere ekipo polita osatu dute, Ian Woosnam eta Mark Mouland jokalariek onak baitira. Iaz txapelketa izan zen

Suedia ere kontuan hartzeko taldea da. Anders Forsbrand eta Per-Ulrik Johansson ez dira golfari oso ezagunak baina...

Garaipena eskuratzeko aukerak dituzten beste talde batzuk hauek dira: Alemania (Langer eta Thuel), Eskozia (Montgomerie eta Brand), Ingalaterra (Richardson eta Gilford), Irlanda (O'Connor eta Rafferty) eta Espainia (Rivero eta Jimenez).

38. edizio honetan, txapelketa izaten den selekzioak 20 milioi pezeta eskuratuko ditu, hamarna. Taldekako txapelketaz gain, bakarkakoa ere jokatuko da La Moraleja 2ko zelaian. Garaileak zazpi milioi pezeta patrikaratuko ditu.



Fred Couples, faborito nagusien artean Munduko Kopan. AP

La Moraleja 2ko zelaia ez da zaila, zazpigarren zuloa ezik. Hau igoeran dagoen 205 metroko hiruko parra da. Bosteko parra duten lau zulo ere badaude.

Azken bi urteetako txapelkunak hauek izan dira: 1990an taldeka Alemania, bakarka Stewart; 1991an taldeka Suedia, bakarka Woosnam.